

# EUROPEAN DAYS OF LOCAL SOLIDARITY

[www.localsolidaritydays.eu](http://www.localsolidaritydays.eu)  
#LocalSolidarityDays

2020ko  
Azaroaren  
14tik 29ra

## Nola egin bat 2020ko Tokiko Elkartasunaren Europako Egunekin?

### Kanpaina

Hiriak eta eskualdeak dira garapen iraunkor globala lortzeko egin beharreko bidearen gidari! Nola egiten dute hori, baina? Mundu osoko hiri eta eskualdeekin egiten dituzten nazioarteko lankidetzak-proiektuen bidez eta iraunkortasunari lotutako erronkak egunez egun irtenbideei begira kudeatuz.

Tokiko Elkartasunaren Europako Egunek (EDLS ingelesez) Europako hiri eta eskualdeei dei egiten diete beren herritarrei kontzientzia harraraz diezaieten garapen iraunkor globalaren erronkez eta ekiteko premiaz.

**2020ko edizioak azaroaren 14tik 29ra iraungo du. Animatu eta etor zaitez!**

### Mezu-gakoak

**Europako hiriek eta eskualdeek indartu egiten dute herritarrek garapen iraunkor globalarekin lotutako gaiez duten ezagutza.**



#### EKIMENA!

Jendaurreko ekimenak antolatzea eta sustatzea, **garapen iraunkor globalarekin lotutako erronkez** eta elkartasunaren garrantziaz **informatzeko eta eztabaidatzeko, hiriak nazioarteko lankidetzak-proiektuetan duen esperientzia azpimarratuz.**

**Europako hiriek eta eskualdeek babestu eta sustatu egiten dituzte tokian eragin handia duten garapen- hezikuntzarako eta herritarren partaidetzarako ekimenak.**



#### EKIMENA!

Gizarte zibileko erakundeekin, herritar taldeekin eta ikastetxeekin lankidetzan jardutea, herritarren konpromiso aktiboa eta elkartasuna irmoki sustatzen duten **sentsibilizazio-kanpainak, jendaurreko ekimenak eta trebakuntza-ekimenak antolatze**ko eta babesteko.

**Europako hiriek eta eskualdeek garapen iraunkorraren aldeko konpromiso politikoa sustatzen dute nazio, Europa eta mundu mailan.**



#### EKIMENA!

Europar barrena alkateen eta tokian tokiko ordezkarien arteko eztabaida sustatzea, eta nazio eta mundu mailako erabaki-hartzaileekin trukeak sustatzea **elkartasunak eta lankidetzak «deszentralizatuak»** tokian tokiko eta mundu mailako garapen iraunkorrean duten **eragin positiboaren** gainean.



## Eragin zure hiriak edo eskualdeak parte har dezan!

Planifikatu zure EDLS ekimena 2020ko azaroaren 14tik 29ra

### Zer da EDLS ekimen bat?

- Europako herri batek edo eskualde batek, edo tokian tokiko eta eskualde mailako gobernuen elkarte batek (besterekin batera) antolatzen duen ekimen bat da.
- Aukera bat da herritarrentzat, tokian tokiko eta eskualde mailako hautetsi eta ordezkariarentzat, gizarte zibileko erakundeentzat eta tokian tokiko beste eragile batzuentzat ikasteko, harreman-trukeak izateko, eztabaidatzeko eta ospatzeko.
- Europako hiriek eta eskualdeek garapen iraunkor globalari egiten dioten ekarpena jartzen du erdigunean, arreta berezia jarritz beren nazioarteko lankidetzan eta hirien arteko aliantzan.

### 2019an...



## Egin bat kanpainarekin!

- **Erabili EDLS kanpainako tresnak** edo gehitu EDLS logotipoa zure materialari zure ekimena sustatzeko eta beronen mezugakoak indartzeko. Orobat sustatuko da EDLS webgunearen bidez ([localsolidaritydays.eu](http://localsolidaritydays.eu)) eta Twitter kanpainaren bidez ([#localsolidaritydays](https://twitter.com/localsolidaritydays)).
- **Izenpetu EDLS ituna zure hiriak** balio amankomun hauen alde egiten duen konpromisoa formalizatzeko: demokrazia, elkartasuna, erantzunkidetasuna eta lankidetzatza. Europako homologoen babesak areagotu egin dezake zure hiriak garapen iraunkor globalaren alde hartzen duen konpromisoaren aitorten politikoa eta soziala.
- **Egin bat** aldizka-aldizka tokian tokiko ikuspegitik sentsibilitatea areagotzeko tresnez, garapen-hezkuntzaz eta garapen iraunkorraz ideiak trukatzeko, ikasten eta eztabaidatzeko aritzen diren **Europako hiri eta eskualdeen komunitatearekin**.

Informazio gehiago nahi izanez gero  
[www.localsolidaritydays.eu](http://www.localsolidaritydays.eu)

[platforma@ccre-cemr.org](mailto:platforma@ccre-cemr.org)

Txio  
**#LocalSolidarityDays**-ekin

EDLSak PLATFORMA antolatzen ditu: hau da, hirien arteko eta eskualdeen arteko garapen-lankidetzan diharduten Europako hiri eta eskualdeen eta haien elkarten sareak. Ekimen hau CEMR-PLATFORMAren eta Europako Batzordearen artean izenpetutako Lankidetzatza Estrategikorako Hitzarmenaren esparruan garatzen da. Europar Batasunak kofinantzatzen du.